

# 2016ko urteko txostena: plagiziden hondakinak elikagaietan

EFSAren elikagaietako plagiziden hondakinei buruzko urteko txostenak ia **82.649** laginen emaitzak biltzen ditu, eta bertan 2016ko datu hauek aurki daitezke:

- **Laginen % 96,2k hondakinak legezko mugen azpitik (LMR) zituen.**

Legezko mugaren azpitik  
(LMR) dauden laginak

2016ko laginetan plagiziden hondakin gehiago aurkitu izanaren arrazoa kontrol egitامuan konposatu kloratuen aurreneko barneraketa da.

- Laginen % **50,7k ez zuen produktu horien aztarna detektagarririk** eta laginen % 45,5k hondakinak zituen, baina legezko mugen azpitik.

Kuantifikazio mugaren  
azpitik dauden lagin %  
LMRaren azpitik dauden  
lagin neurgarriak

- Beste herrialde batzuetako laginen % **7,2k gainditu zituen legezko mugak**, % **4,7k ageriki gainditu (ez konforme)** bazituen ere. Europari dagokionez, berriz, laginen % **2,4k gainditu zituen legezko mugak**, baina **laginen % 1,2k ageriki.**

EBan jatorria duten  
produktuen laginen % ez  
konformea

Beste herrialde  
batzuetako jatorria duten  
produktuen laginen % ez  
konformea

## Umeentzako elikagaiak

**Umeentzako elikagaien** 1.676 lagin aztertu ziren: % **89.8k ez zuen hondakin kuantifikagarririk**. Era berean, % **98.7k ez zuen LMRa gainditzen edo ez zuen hondakin kuantifikagarririk**.

## Nekazaritza ekologikoko produktuak

**Produktu ekologikoen laginen % 98.7an ez zen plagiziden hondakinak atzeman** edo legezko mugen barruan aurkitu ziren.

produktuen LMR azpiko %  
laginak

Umeentzako elikagaien  
LMR azpiko % laginak

## Arriskuen ebaluazioa epe laburrera eta epe luzera


EFSAk, txosten honen datuak erabiliz, plagiziden hondakinen gaur egungo dietaren esposizioa europako pertsonentzako, epe laburrera (akutua) edo epe luzera (kronikoa), arriskutsua ote den adierazi du.

EFSAk ondorioztatu du **kontsumitzaileentzat oso txikia dela osasuna kaltetu dezaketen kontzentrazioen gainerako hondakin-kopuruen aurreko esposizioa izateko aukera.**

Halaere, etorkizunean espero da, modelo probabilistikoak elikagaien prozesamenduen faktoreekin bateratutak, esposizio estimazio errealistagoak lortzea, gaur egunean erabiltzen diren modelo deterministak ez bezala.

## Ikerketaren emaitzak aztertzeko EFSaren infografia

Elikagaien edo estatuen plagiziden hondakinen kontsulta errazten duen infografia argitaratu du EFSAk bere web orrian. Sartu bertara argazkian klik eginez.




([http://www.efsa.europa.eu/en/interactive\\_pages/Pesticides\\_report\\_2016](http://www.efsa.europa.eu/en/interactive_pages/Pesticides_report_2016))

The 2016 European Union report on pesticide residues in food - EFSA (<https://doi.org/10.2903/j.efsa.2018.5348>)

2015ko urteko txostena: Plagiziden hondakinak elikagaietan  
(<https://efsa.onlinelibrary.wiley.com/doi/epdf/10.2903/j.efsa.2017.4791>)

2014ko urteko txostena: Plagiziden hondakinak elikagaietan (<https://nekazaritza.elika.eus/berriak/urteko-txostena-plagiziden-hondakinak-elikagaietan-efsa-2016/>)

2013ko urteko txostena: Plagiziden hondakinak elikagaietan (<https://elikagaiensegurtasuna.elika.eus/urteko-txostena-plagiziden-hondakinak-elikagaietan-efsa-2015/>)



Necesario tener JavaScript habilitado, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 . [berri@elika.eus](mailto:berri@elika.eus)  
(<mailto:berri@elika.eus>)